

Gure konpromiso sozialaren barruan sartzten da emakumeenganako indarkeria jazartzea eta borrokatzea

Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Euskadiko Langile Komisioetako Batzordeko ebazpena.



Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Euskadiko Langile Komisioen Sindikatuak adierazi nahi du mundu guztian praktikatzen den indarkeria matxista mota ororen aurka dagoela, emakumeen eta gizonen arteko diskriminazioaren eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketaren adierazpen bortitza delako.

Azaroaren 25ean, CCOOk jakinarazi nahi du emakumeen eraiketak arbuizatzen dituela, gaur egungo

2010eko Azaroaren 17an

gizartearen lakra handiena direlako eta ezinbestekoa dela gizarte zibil osoaren, administrazioen eta erakundeen etengabeko konpromisoa indartzea egiturazko fenomeno honi aurka egiteko, zeinak desberdintasunean eta gizon eta emakumeen arteko botere harremanetan baitauka jatorria.

CCOOk ezinbestekotzat eta beharrezkotzat jotzen du guztiz eta eraginkortasunez aplikatzea Genero Indarkeriaren aurkako babes Integraleko Neurrien Lege Organikoa, zeinaren garapenari esker aurrerapen garrantzitsuak lortu baitira, erakunde espezifikokoak indartuz, laneko eskubideak aitortuz, inplikaturako profesionalei prestakuntza eta sentsibilizazioa eskainiz eta, era berean, hobekuntzak lortuz indarkeriaren biktima diren

emakumeentzako prebentzioan, arretan, babesean, baliabideetan eta diru-laguntzetan.

Lege honi esker jauzi kualitatibo bat eman da indarkeriaren aurkako borrokan eta horregatik aplikatu behar da ahalik eta eraginkortasun handienarekin, bidean aurki genitzakeen eragozpen guztiak desagerraraziz. Beti kontuan izan behar dugu indarkeriaren fenomeno egiturazkoa dela eta konplexua oso, eta arazo hau konpontzeko arau ez askoz haratago joan beharra dagoela, arazoa errotik konponduko duten aldaketak eginez; aldaketak baloreetan, hain sustraituta dauden portaera kultural patriarkaletan... Horretarako, oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetua berdintasunaren eta demokraziaren ikuspegitik sustatuko duen eszenatoki sozial bat behar da.

Horregatik guztiagatik, CCOO-k azpimarratu nahi du zein garrantzitsua den Lege Organiko hau genero indarkeriaren biktima izan diren langileentzat, laneko eskubideak eta gizarte segurantzakoak aitortzen dituelako eta hainbat neurri onartzen dituelako enplegua eta baliabide sozial eta ekonomikoak sustatzeko. Dena den, gure ustez eskubide eta neurri horiek gehiago ezagutarazi behar dira, zeren Legeak laneko esparruan izan duen eraginari buruzko datuek adierazten baitute ez duela intzidentzia handirik izan enpleguaren sustapenean, ez eta laneko zenbait eskubideren aplikazioan.

Gure iritziz, ahalegin komun handia egin behar du inplikaturako administrazio, organismo eta gizarte eragile guztiek, neurriei eta eskubideei buruzko informazioa zabaltzeko eta indarkeriaren biktima diren langileek

oso-osorik erabil ditzaketela bermatzeko.

Langile Komisionen Konpromisoa

- Administrazio publiko guztiekiko eta inplikaturako eragile sozialekiko lankidetzaren sustatzea, kontuan hartuz genero indarkeria arazo sozial bat dela eta guztiok aktiboki parte hartu behar dugula horren aurkako borrokan, ekintza esparru desberdinetatik jardunez eta emakumeen aurkako diskriminazio sozialaren lakra hau prebenitzeko eta desagerrarazteko neurriak martxan jarritz.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren arloko eta genero indarkeriaren aurkako neurriak eta eskubideak ezagutarazten laguntzea hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituztenei, sindikatu-erakundeetako arduradunei eta langileei, prestakuntza eta sentsibilizazioa emanaz eta horrela bermatuz negoziazio kolektiboaren bitartez hobetuko direla genero indarkeriaren biktima diren langileei legalki aitortzen zaizkien eskubide laboral eta sozialak (Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurrien 1/2004 Lege Organikoan bilduak).
- Lantokiko genero indarkeria desagerrarazten laguntzea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzko 3/2007 Lege Organikoan jasotako eskubideak aplikatuz, enpresek

langileen legeko ordezkarezekin negoziatu behar dituzten Akordio eta Prozedurak ezartzeari dagokionez.

- Berdintasun politikak garatzen laguntzea, zeintzuen bidez hezkuntzan eman beharreko aldaketak bideratuko baitira (baloreak, jarrera sozialak) eta sentsibilizazioa eta ekintzak bultzatuko baitira, aurrera eginez emakumeenganako indarkeria mota guztien tratamenduan, prebentzioan eta desagertzean, besteak beste, sexu jazarpena eta sexuagatikiko lantokiko jazarpena.

Nazioarteari eta Europari dagokionean, CCOO sindikatuak azpimarratu nahi du beharrezkoa dela gobernuak genero berdintasunaren alde hartutako konpromisoa eta akordioak bultzatzea eta eraginkor egitea, bereziki 2015erako emakumeenganako indarkeria desagerrarazteari dagokiona (Milurtekoaren Garapenerako Helburuak lortzeko data bera alegia).

Era berean, genero indarkeria onartzen edo justifikatzen duten integrismo erlijioso eta kultural guztiak salatu nahi ditugu. Badugu horren adibide argi bat: Sakineh Mohammadi Ashtiani emakume irandarraren lege babesgabatasun egoera. Autoritate eta organismo erantzuleei eskatzen diegu emakumeenganako indarkeriaren aurka borroka daitezela, giza eskubideak urratzen dituzten legeak indargabetuz, pobrezia, feminizazioaren aurka eginez eta bazterkeria soziala eta sexu esplotazioa jazarriz.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 25ean emakume elkarteek, erakunde sozialek eta sindikatuek Euskal Autonomia Erkidegoan antolatu dituzten mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu, emakumeenganako indarkeria salatzeko eta desagerrarazteko hartu dugun konpromisoa adierazteko.